

LEB


LENGOAIA ESZENIKO BERRIAK

PROGRAMALEB 25 - LAB

EGONALDI ESZENIKOAK

DEIALDIAREN OINARRIAK

Agoizko Udalaren lankidetzarekin





IRIARTEA PILEZ Elkarteak, **LEB 2025 PROGRAMAREN** sustatzailea denak, **Agoizko Udalarekin** elkarlanean, hiru egonaldi eszeniko eskaintzen ditu. Proiektu honek Innova Programaren babes du, Fundación Caja Navarra eta “la Caixa” Fundazioek bultzaturik.

1. HELBURUAK

LEB LAB proiektuak ikerketa eszenikoa sustatu nahi du, eszenoturgiaren esplorazioa, forma eta poetika berriak bilatuz, abangoardiako formatuetan eta Lengoaia Eszeniko Berrietan (LEB) oinarritutako apustuak eginez.

Zertaz mintzo gara “Lengoaia Eszeniko Berriak” edo “eszenako abangoardia” aipatzen dugunean? Batez ere, sormen arriskuen onarpenaz. Zentzu zabal batean ekiten diogu ideia honi narrazioak, diskurtsoak eta/edo sinboloak estutu, ezabatu, zalantzan jarri, berrinterpretatu, irauli edo transposatzeko prest. Baita ere, publikoarekiko harremana birpentsatu, edota sormenerako medio diren gailu ezberdinak berrantolatzea proposatzen dugu. Besteak beste, kanalak, kodeak, hitza, gorputza, objektuak, denbora, espazioa, materia... Azken batean, eszenako ikur-joko bat da, kanonak eta formatuak gainditzeko asmoz.

2. PRINTZPIO ETA BALOREAK

LEB 2025 PROGRAMA feminista, queer, inklusiboa, integratzailea, solidarioa, irisgarria eta nazioartekoa da. Printzipio hauek jorratzen dituzten proiektuek — bai gaietetan, ikuspegietan, tratamenduetan, zein diskurtsotan edota hausnarketa kritikoak eginez— balorazio positiboa izango dute.

Ustegabeko topaketak eragin nahi ditugu eta, horien bitartez, norantza anitzetako eza-gutza trukaketa sustatu ere. Horregatik, deialdi honek sortzaile eta publikoaren arteko bideak zabaltu nahi ditu gizarte-itzulkinaren printzipioa kontuan hartuz.

3. NORK PARTE HAR DEZAKE?

Abangoardiako kodeetan lan egiten duten konpainia eta/edo kolektibo zein artista eszenikoek parte hartu ahal izango dute, baldin eta deialdi honetan parte hartzeak beren sormen prozesuetan bultzada esanguratsua ekar badezaieke.

Profil desberdinetako konpainiak hautatuko dira. Lan mota ezberdinetan diardutenak, bai jatorri eta errealitate anitzak kontuan hartuta (forala, estatala eta nazioarteko ja-





torrizkoak). Hautautakoen artean, behintzat bat, euskeraz lan egiten duen konpainia izando da.

Gizarte-inklusioren ikuspegitik lan egiten duten konpainiek, ezgaitasunen bat duten edo gizarte-bazterkeria arriskuan dauden pertsonak taldeetan integratzen dituztenek, balorazio positiboa jasoko dute.

Artistek, konpainiek eta/edo kolektiboek beraien lanen Intelektualezko eskubideen jabetza izan beharko dute, eta beste inorren eskubiderik urratzen ez dutela bermatu ere. Horrelakorik gertatuz gero, legezko erantzukizuna beren gain hartu beharko dute.

4. ZER ESKAINTZEN DUGU

Egoiliarrek diren konpainia, kolektibo eta/edo artistek Agoizko antzokia erabili ahal izango dute bi astetan zehar, astelehenetik larunbatera, goizeko ordutegian. Antzokiak ekipamendu osoa du eta Agoizko Kultur Etxean (Nafarroan) dago (<https://redteatros-navarra.com/es/recintos-escenicos/casa-de-cultura-de-aoiz>),.

Agoizko Kultur Etxearen jarduerak ordutegi-egokitzapen puntualak ekar ditzake, eta horiek aurrez jakinaraziko zaizkie egoiliarrei, alde guztien interesak bateragarri egiteko.

Egonaldien egutegia honako hau izango da:

- Lehenengo egonaldia: 2025eko abuztuaren 19tik 31ra
- Bigarrena: 2025eko irailaren 1etik 14ra
- Hirugarrena: 2025eko irailaren 15etik 28ra

Konpainia, kolektibo eta/edo artistek 3.000 € (hiru mila euro) jasoko dituzte, BEZa barne, bidaia, ostatu, mantenu, kontratazio, aseguru, Gizarte Segurantzako alta, Lan Arriskuen Prebentziorako Plana (LAPP), eta bestelako produkzio-gastuak (kontsumigarriak, atrezzoak, jantziak...) estaltzeko. Gastu horiek guztiek egoiliarren kontura izango dira.

LEB LABeko antolatzaileok irudiak, bideoak eta audioa dokumentatu eta zabaltzeko eskubidea izango dugu, bai deialdi honek babestutako sormen prozesuei dagokienez, bai LEB 2025 PROGRAMAREN esparruan egingo diren jarduerari dagokienez.





5. EGOILIARREN BETEBEHARRAK

Egoiliarrek ez dute zertan emaitza zehatz eta itxi batera iritsi behar, euren hautagai-tzan zehaztuetako helmugetara baizik.

Gizarte-itzulkinaren printzipioa aintzat hartuta, konpainiek, hautagaitza aurkezte-rakoan, bitartekaritza jarduera bat proposatu beharko dute, sormen prozesuak publi-koetara zabalduz. Hasiera batez, jarduera hau bigarren larunbatean izan beharko da, sormen prozesuari amaiera emateko.

Taldeen buru diren pertsonak (gutxienez talde bakoitzeko bat) 2026ko otsailean (data zehazteke dago oraindik) Elizondon (Nafarroa) egingo den topaketa batean parte hartzeko konpromisoa hartzen dute. Topaketa horretan onuradun guztiak bilduko dira beren esperientzia partekatzeko. Partaidetza horren kostuak egoitzako diru-zuzkidu-ran sartuta daude, eta onuradunen kontura dira.

Agoizko Kultur Etxeak bere baliabide teknikoak jarriko ditu egoiliarren eskura. Konpai-niek horien erabilera egokia eta arduratsua bermatu beharko dute, eta ekipamendu osoa egoera berberean itzuli beharko dute. Erabilera desegokiaren ondoriozko kalteak izango balira, konponketa konpainiaren kontura izango da. Konpainiek antzerkiko do-tazio teknikoaren erabilera profesionala bermatuko duen arduradun tekniko bat izenda-tuko dute, antzokiko zuzendaritza teknikoarekin harremana izango duena.

Egoiliarren taldeko parte-hartzaile guztiek legez kontratatutak egon beharko dute eta Gizarte Segurantzaren alta emanda egon ere. Baita ere, konpainiek, artistek eta/edo ko-lektiboek Erantzukizun Zibileko Asegurua eta Lan Arriskuen Prebentziorako Plana (LAPP) izan beharko dituzte. Dokumentu horiek egonaldia hasi aurretik eskatuko zaizkie.

Artistek, konpainiek eta/edo kolektiboek fakturatzeko gaitasun legala izan beharko dute, ordainketa fakturen bidez egingo baita bi zatitan:

- Lehenengo ordainketa: 2.000 € (BEZa barne) egonaldiaren hasieran egingo da, “egonaldiaren lehen ordainketa” kontzeptupeko faktura dela medio eta azaldu berri den dokumentazioa egiaztatu ondoren.
- Bigarren ordainketa: 1.000 € (BEZa barne), egonaldia amaitu eta gero, “egonal-diaren bigarren ordainketa” kontzeptupeko fakturaren bidez eta datozen atalean deskribatutako memoria aurkeztu ondoren.

Kultur Etxeak utzitako ekipamenduan kalteren bat atzemanaz gero, edo deialdiaren oina-riak betetzen ez badira, bigarren ordainketatik dagokion zenbatekoa kenduko da, eta hori fakturekin (edo egoki den dokumentazioarekin) justifikatuko da. Kaltea edo arazoa han-diagoa bada, antolatzaileok legezko bideetatik erreklamatuko dugu dagokion zenbatekoa.





6. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Hautagaitza telematikoki bakarrik aurkeztu ahal izango da, **www.programaleb.com** webgunean eskuragarri den formularioa bete ezker. Ez da beste bideetatik jasotako proposamenik onartuko.

Formularioa bete ondoren, dokumentu bakar bat atxiki beharko da PDF formatuan (gehienez 5 orrialdetako), eta hurrengo informazioa jaso beharko du:

- Proiektuaren izenburua eta deskribapena, oinarri hauetan nabarmendutakoari arreta berezia jarritz.
- Landuko diren helburuak, gauzatu beharreko ekintzak, kronograma eta ebaluazio-adierazleak (kuantitatiboak zein kualitatiboak).
- Motibazio-gutuna: deialdi honek zer ekarpen egin diezaioke proiektuaren garapenari azalduz.
- Bitartekotza-plana: proiektu honek zer ekarpen egin diezaioke garatuko den komunitateari (itzulkin soziala) argituz. Jarduera bat zehaztu beharko da, sormen-prozesua gizarteari irekitzearen, eta jarduera horren publiko objetiboa definitu beharko da (antolatzaileok saiakera guztiak egingo ditugu publiko horiek ekarrarazteko).
- Konpainiaren eta taldekideen ibilbidea eta curriculum laburra.
- Beste material batzuetarako estekak eta sarbideak (webgunea, argazkiak, bideoak...).

Aurkezteko epea 2025eko abuztuaren 10ean amaituko da, 23:59etan. Une horretatik aurrera, aplikazioa automatikoki itxiko da. Epe hori ez da luzatuko.

Onuradunek, egoitza amaitu eta hilabeteko epean, amaierako memoria bat egin beharko dute. Bertan, gertatutakoa baloratu eta aurkeztutako proiektuan duten hasierako planteamenduarekin alderatu beharko dute, eta aldi berean, egonaldian, ikerketa eta esplorazio prozesuen bitartez egindako aurrerapauso artistikoak azaldu beharko dituzte. Memoria horrekin batera, material grafikoa, testuala eta bideografikoa aurkeztu beharko da. Antolatzaileok material hori erabili ahal izango dugu LEB PROGRAMA zabaltzeko eta sustatzeko.

Egoiliarrak hautatzeko, proposamenaren egokitzapena baloratuko da, LEB 2025 PROGRAMAREN helburu, printzipio eta baloreekin bat egiten duen ala ez. Era berean, proiektuaren barne-koherentzia, bideragarritasuna eta balio-proposamena ere kontuan hartuko dira.





Egoiliarrek antolatzaileok eska dezakegun edozein informazio osagarria eman beharko digute.

7. DATUEN BABESA

Hautatuak izan ez diren proiektuei buruz bidalitako dokumentazio guztia hautaketa-batzordearen erabakiaren ondorengo hogeita hamar (30) egunetan baino ez da gordeko. Informazio horrek izaera konfidentziala du, eta ezingo zaie hirugarrenei jakinarazi edo beste helburu batzuekin erabili, salbu eta indarrean dagoen legeriak aurreikusten dituen salbuespenetan.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Araudiak eta abenduaren 5eko 3/2018 Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko Lege Organikoak ezarritakoarekin bat etorriz, deialdi honetan parte hartzen dutenek emandako datu pertsonalak IRIARTEA PILEZ Elkartearen titulartasuneko fitxategi baten parte izango dira. Datu horiek ondorengo jardueretarako erabiliko dira: hautaketa-batzordeari jakinaraztea, komunikazioetarako, kudeaketa administratiborako, zor zaizkien zenbatekoak ordaintzeko, ebazpenaren argitalpena egiteko (Interneten), jardueren memoriak osatzeko eta horien publizitatea egiteko, edo deialdiaren garapenarekin lotutako beste edozein kudeaketarako.

Datu pertsonalen babesaren oinarritzko eskubidearen titularrek honako eskubide hauek baliatu ahal izango dituzte: datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu, mugatu, aurka egin, datuen eramangarritasuna eskatu eta erabaki automatizatuen menpe ez egoteko eskubidea. Eskubide horiek baliatzeko, interesdunek eskaera bat bidali beharko diote IRIARTEA PILEZ Elkarteari, honako helbide honetara: IRIARTEA (diseminatua) Etxaide Auzoa, Elizondo 31700, Baztan (Nafarroa), edo mezu elektronikoko bidez: info@iriarteapilez.com.

Idatzian interesdunaren identifikaziorako beharrezkoak diren datuak agertu beharko dira, eskatutako eskubidea, arrazoiak eta eskaera bera zehaztuta, eta NANaren fotokopia erantsita.





8. APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA

Parte-hartzaileek deialdia sustatzen duten erakundeak salbuesten dituzte plagiotik edo parte-hartzaileek indarrean dagoen legedia urratzeagatik sor daitezkeen beste edozein erantzukizunetik.

Erreklamaziorik edo gatazkarik izanez gero, parte-hartzaileek eta antolakuntzak Nafarroako epaitegien jurisdikzioaren mende egon beharko dute.

LEB 2025 PROGRAMAREN antolakuntzatik oso kontziente gara lan-ingurune duin bat bermatzeko dugun erantzukizunaz, non pertsonen duintasuna eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna errespetatuko diren. Horretarako, genero-indarkeriaren eta indarkeria sexualaren aurkako babesa bermatzeko neurriak jasotzen dira.

Antolakuntzak konpromisoa hartzen du emakumeen aurkako eta/edo LGTBIQ+ kolektiboen aurkako indarkeria matxistaren edozein adierazpen identifikatu eta geldiarazteko, betiere biktima zaindu, babestu eta laguntza ematen dion protokoloa aplikatuz, eta gertakariak berehala, agintari eskudunen aurrean salatuz.

9. OINARRIAK ONARTZEA

Deialdi honetan parte hartzeak oinarri hauen ezagutza eta onarpen osoa dakar berekin.




LEB

LENGOAIA ESZENIKO BERRIAK

PROGRAMALEB.COM

info@programaleb.com · 670 410 654



ANTOLATZAILE



LAGUNTZAILE



LAGUNTZAILE



Un programa de:

